

MUko ikasle bat, pilota txapeldun 2. mailan

2006/06/05

Joan den larunbatean Labrit pilotalekuan, Iruñean, Asier Berasaluze **HUHEZIKO** ikasleak irabazi zuen txapela 2. mailako buruz burukoan, 22-21 irabazita Iker Arretxeri. Kronikek diotenez, Asierrek ohi baino min gutxiago egin zuen sakearekin, baina beste dohain batzuk erakutsi zituen. Partida nahasi samarra izan omen zen, baina emozioz betea, azken pilotakada arte. Titulu horri esker, **Asier Berasaluzek** eskubidea izango du datorren urtean lehen mailako buruz burukoa jokatzeko.

Asier Berasaluze Hezkuntza Fisikoa ikasten ari da, Irakasle ikasketen barruan, eta aurten amaituko ditu ikasketak.

